

# GURE IBAIAREKIKO KONTAKETA

1985eko Maddalenetako jaien Egitarauari begiraldi bat eman gabea genuelarik, talde honek hasi zuen gure hirian hain garrantzitsua den arazoaren errebindikazioa, zeren eta garbi bait dago errenteriar guztien bizia txartu besterik ez duela egiten.

Denon problema izanagatik, oso ondo genekien burutu beharreko ekintzak bertan behera etor zitezkeela ez bagenuen behar hainako kontu eta sentsibilitatearekin aurrera eramaten.

Egun haietan, mila bat errenteriarren zinaduren laguntza bildu bagenuen ere, ezer gutxi genekien uraren kutsaduraz eta oraindik gutxiago zen agintarien tratuz genekiena, baina denoi kalte egiten digun arazoari irteera eman nahian, hasi ginen paregabeko eginkizun honetan.

Papelerako zubian xardin izugarri bat jartzearekin batera eman genion hasiera —geroago anagramatzat hartu genuena— zentzu askotako ekintza frankoei, alegia kulturaleri, propagandazkoei, gure agintariékin bilerak egitean berauei eta pertsonalitate ekonomikoari salaketak egiteari etab... Apurka apurka, gure eginkizunara edade eta erakunde ezberdinak bildu dira, hau da, gure ibaiaren kutsadurarekin sentsibilizaturiko asko.

Halaxe da, eskuin aldeko kolektorea inauguratu zelarik egin zen propaganda erakargarri gutxikoak erabat zapuztu gintuen. Areago oraindik, gure kezkak errealitate bihurtu ziren, hots depuratzailer instalazioak eskasak zirenez, ez zezaketen eragingarritasun guztia eman, nahiz eta soluziobide hau batera errekomentagarria ez izan.

MOPUren boletina gure etxeetara heltzearekin batera gure bidearen amaiera hurbil zegoela zidurien, halare, esandako datan proiektua ez burutzeak eta ondorengo atzerape-

nak industri garaian hasitako ekintza berdinekin jarraitzea animatu besterik ez gaitu egin, oraindik atera ez garenak nahiz eta demokrazian bizi eta gainera bere irtenbideak askotan demagogikoak gertatzen dira.

Nolanahi ere, behin betirako soluziorik gabe, naturaleza gure ibaian ahal duelarik asentatzen da, ahazturiko goroldioa eta bizirik beteriko korkoiaz ibaiak beteaz, baita ere azken Maddalenetan, gure hiriko biztanleok beren batekin pozez bete gintuzten, gure koloreak ganbaran egon ziren eta igarotako ihauterietan gure gazteraren alaitasuna nabigatuz eta lehorratuz, —nahiz denbora gutxiko izan— jardunaldi atseginak eskeini zizkiguten. Ekintza hau, datozen jaietan eta beste askotan ere, itsas karrozen motorra bihurtzen ahal den!

Gure bidaian zehar, estraradioetan zabor industrial zerbitzu batar dezaten, kexa azaldu genuen geldiketak eginez, baita denbora berean gure etxeetako zaborrekin bertako biztanleok laguntza eta portaera hobea eskeintzeko eskatu genuen, halaber eskatzen dugu, hiltegiaren edifizioan arraun eskola lehen bait lehen burutzea nahi genuke, zeren eta gisahonetan gazteak motibazio gehiago izango bait dute kirol eskaldun eta mundiala den honetan.

Egazti migratzailea bezala ederki etorri zitzaigun europar parlamentariak Donostiatik pasatzea, horrela gonbidatu ahal izan bait genituen bertan ikus zitzaten gure arazo latzak eta bistan denez oso gustora etorri ziren, egun osoan *in situ* konprobatu zutelarik ibaiaren kutsadura gogaikarria.

Ez dakigo kontake honen datarengatik baina gogo biziz zain bozketen emaitzik gaude beti egindako eskeintza elektorala gehigo berantetsi gabe egia bihur dadin, gure herri sufrutu honen onerako izango bait da, izaten direnak izan hauteskundeen emaitzak.

## OIARTZUN IBAIAREN LAGUNAK

*Urangátar Ion Iñaki*